

# Aretxagazeta

ETA GAINERA...

## Ze barri?

GAIA

Udal Bibliotekaren  
inaugurazioa /8

JAIAK

Iñauteri  
festak /9

LEINTZ GATZAGA

Zikloturistei  
ongietorria /10



# MOZORRO FESTA HERRIAN

EGURALDIA: HAIZEAK ERAGINDAKO KALTEAK/4 • KIROLAK: AITOR ALCAIDE/6



## ATREBENTZIAEZPADA/ Karnabaletarako ze disfraz preparau dozu? Urtero disfrazetan zara?



**EKAITZ IRUSTA**  
8 urte



**JONE MEABE**  
11 urte




**XABIER ZUAZABEITIA**  
2 urte



**IKER HERNÁNDEZ**  
7 urte



**EIDER LUENGO**  
4 urte



**MAIDER IDIGORAS**  
7 urte

Ondiokan bat bera be ez. Domekan ze disfraz jantziko doten pentsauta dauket, baiñe ondiokan ez dot preparau. Eskolan, barrez, joaldun disfraz gertatu dou martitzenien jantzeko.

Pentsetan nabil ondiokan, disfraz bat baino gehixago dauket pentsauta. Almenen mobilitez, Internetez eta ordenadorez disfrazauko gare aurten. Urtero disfrazetan naz.


Disfraz bi dauket aurten: Pantera Arrosana domekan jantziko dot eta zezenana martitzenien, Pausokan. Ondiokan ez dittut disfrazak preparau, amatxo dabil horreik gertaketan.

Indixo disfraz domekarako eta *Mielotxin*-ena martitzenarako, Kurtzebarriko lagunekin jantzeko. Txikitxotatik urtero jantzen naz karnabaletan, eta asko gustetan jat.

Bueno, gutxi gorabehera preparaute dauket. Aurten, baiñe, disfraz bi dauket pentsaute, eta, hortan, zeñekin geratuko nazen erabaki biherko dot. Fan zan urtien be disfrazu nitzen.

Disfraz probau barik dauket, baiña aurten domekan printzesa trajie jantziko dot. Martitzenien, barrez, eskolako lagunekin robot jantziko naz. Urtero disfrazetako ohiturie dauket.

## TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK PARTE HARTZE ESKASARI** Astelehenean, hilaren 24an, Korrika 13ko batzordea osatzeko batzarra egin behar zuten aretxabaletarrek. Baina batzarrera herriko elkarteetako hiru ordezkari besterik ez zen hurreratu. Hortaz, AEK-ko koordinatzailea ia bakarrik gelditu zen batzarrean. Korrika 13 herri ekimena da, hortaz, herritarron parte-hartzea behar-beharrezkoa da./A.L.

## ETABARRUAN...

EGURALDIA /04

JAIK /05

KIROLA /06

### Haizeak egin-dako kalteak

Aste hasieran ibili zen haize zakarrak kalte ugari eragin zituen bai herrian, bai auzoetan.

### Aratusteetako egitaraua

Udaleko Kultura Sailak dagoeneko gertu dauka aurtengo Aratusteetako egitaraua.

### Aitor Alcaide xake jokalaria

Euskal B Ligan lehenengo gelditu eta gero, Ohorezko Ligan jokatuko dute Arlutzeko xakelariek.

## ASTEKODATUA

# 6.465

### EURO GASTATUKO DITUZTE AURTENGO ARATUSTEETAN

Kultura Sailak 6.465,5 euro gastatuko ditu Aratusteetan. Domekako ekitaldietarako 2.612 euro bideratuko ditu eta martitzeneko ekitaldietarako, 3.302. Diru gehien txarangendako izango da.

## BESTEKEESANA

**“Nire bizitzaren heren bat mendian pasatu dut, baina horrek merezi izan du. Nire anaia, lagun eta**

**kordako kidea galtzea moduko une txarrak pasatu behar izan ditudan arren, mendiak asko eman dit, eta hura gabe ezingo nintzateko bizi.**

**Ez naiz crack bat, ez eta paregabeko alpinista bat ere... betikoa naiz. Erronka berriak gaintzen saiatzen naiz aurrerapauso bat emateko.**

**Gustuko dudalako eskalatzen dut, ez ospea izateko, ezagutzera emateko eta sakelako diru-zorroa diruz betetzeko.**

**Ez dakit zenbat irabazten dudan ere. Mendiak soldata normal batendako ematen dit, eta ez naiz kexatzen. Gure kirolean pribilegiatua naizela esan dezaket.**

**ALBERTO IÑURRATEGI**  
**'Interviú'/03-02-23**

## HERRITARRENBERBAK/ Edorta Mendieta



*Okerrean jo eta ke*

**H**ori zioen Mikel Irizarrek otsailaren 14ko *Goienkaria*-ko *Piperrautsa* bere zutabeen. Geuk, abertzaleok, historian zehar egindako hutsegiteez ari zen. Eta nola geuk egindako okerren ordaina jasotzen ari garen orain, alegia. Bera Nafarroa eta lurraldetasunaren auziez ari zen, baina gauza bera esan genezake beste hainbat auziren inguruan ere: hizkuntza, eskubide nazionalak, giza eskubideak...

Aste honetan, berriz, George Clooneyri egindako elkarrizketa irakurri dut Bartzelonako *La Vanguardia* egunkarian. Tipo famatua, guapoa eta aberatsa, baina buruan ere badu besterik ileaz aparte. Europa inguruan dabil bere pelikulak promozionatzen eta, bide batez, Iraken erasoaren kontrako bere jarrera agertzen. Hori ez da notizia. Bai, ordea, elkarrizketa horretan egiten zituen erreflexio mamitsuak.

Esatera zetorren modera-

zioa dela gaitz guztien sendagaia. Elkar ezagutu eta onartzeak konpontzen dituela herrien arteko auziak. Biolentziak biolentzia gehiago besterik ez dakarrela. Errebantxismoa espiral sakona dela eta, behin burua zurrumbilo horretan sartuz gero, oso zaila izaten dela bertatik ateratzea. Munduari begirada bota baino ez dago. Begira bestela Palestina eta Israel. Edo Hegoamerika. Edo Afrika. Edo Euskal Herria. Gizakiok hanka sartzen trebeak gara. Baita geure posturan burugogor

tinko mantentzen ere. Geuk, abertzaleok, gaizki jokatu izan ditugu gure kartak. Eta, orain, horren ordainean, espainiar nazionalista traketsenek beren errebantxa jarri dute martxan. Hanka sartze galanta berriz ere. Alderdien legedia etorri zen lehenengo. Araudi penal berria gero. Aste honetan Egunkariaren atea itxi dituzte. Bihar, nork daki. Eta bitartean espirala jira eta bira.

**“Espainiar nazionalista traketsenek beren errebantxa jarri dute martxan. Hanka sartze galanta berriz ere”**

# Aretxagazeta

Durana 11  
20550 ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 86 21  
Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA  
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA  
Mirari Altube  
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA  
Goio Arana

PUBLIZITATEA  
Ziortza Martín

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA  
55-378-94

ISSN  
1134-2609

TIRADA  
3.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako  
Kultura Saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Aretxabaletako  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

## 'Egunero' aurrera

Gaurkoan Katalunian bizi den mutil baten kontuekin hasi behar naiz berbetan. **Julen Cobos** da bera, eta aurrekoan, Donostian izan zen, Bat Gehio bere taldearekin. Donostiako Guardetxean eman zuten kontzertua, eta Aretxabaletako koadrilakoak ere han izan zituen animatzen. Hauek bai jarraitzaile finak!

Julenek kontzertua eman zuen, eta beste aretxabaletar batek hitzaldia eman du: **Alberto Iñurategik Hire Himalaia** liburuaren gaineko hitzaldia eman zuen Eskoriatzan. Aldameneko herrian bai, eta gurean noizko? Laster espero.

Kontu hauek esan ostean, eta agurtu aurretik, domekako zitarako deia luzatzen da. Animiziorik ez da faltako herriko kaleetan, moztorrorik ere ez, eta ziur egon *Egunerorik* ere ez dela faltako. Animo, eta *Egunero* aurrera!

## JOSU HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia  
kroasantegia  
Janari prestatuak

Mitarte kalea  
ARETXABALETA  
943 77 03 08

EGURALDIA/ Edukiontzien jotako automobilek izan dituzte kalte handienak

## Kalte ugari eragin ditu azken egunotan ibili den haize zakarrak

MIRARI ALTUBE

Haize benetan zakarra ibili da azken egunotan, eta kalte ugari eragin ditu herrian. Arbizelai parean zuhaitz bat, futbol zelaiko markagailua, kirol etxeko kristalak, teilatuetako teilak, lorontziak, balkoietako antenak... Zer ez du bota eta airean eroan haize zakarrak?

Zapatuan hasi eta ondorengo egunotan haize beldurgarria ibili da bazterrak airatzen. Kalte ugari eragin dituen arren, zorionez ez du inork minik hartu.

### ZUHAITZAK, LURRERA

Izugarrizko lana izan dute azken egunotan herriko udaltzainek eta zerbitzuetako langileek haizea dela-eta. Astelehen eguerdian, esaterako, akazia bota bat zuen Arbizelai parean, eta errepidea itxita egon zen ordubetez. Arratsaldean, berriz, markagailua bota zuen futbol zelaietan. Martitzenean ere apurketa ugari egin zituen kirol etxean: kristalak, uralitazko plakak... Kantxa ezin zen erabili. Auzoetan ere zuhaitz bat baino gehiago joan ziren lurrera, Galartza eta Izurieta aldean, baina zuhaitzok zorionez ez zuten beste munduko kalterik eragin.



Astelehen arratsaldean, futbol zelaiko markagailua bota zuen lurrera haizeak.

Teilatuetako teilek eta zaborren edukiontzien ere kalte ugari egin zituzten. Haizeak hara eta hona ibili zituen edukiontzia, eta horren ondorioz, hainbat automobilek izan zituzten kalteak.

## LABUR

### Beste udaltzain bat hasiko da lanean martxoan

Urtarrilean hasi zen lanean Iban da Silva udaltzaina, eta orain, bi aste barru, beste udaltzain bat izango dugu herrian. Oscar Briñas da bera, arrasatearra, eta Jose Núñez udaltzainaren lekua hartuko du. Jose min hartuta dago aspaldian, eta bere gaixotasunak onera egiten ez duela ikusita, Udalak ordezkoa hartzea erabaki du.

Oscar Briñas Udalak egindako hautaprobetan bigarren postuan geratu zen Iban da Silvaren atzetik.

### Ibarreko elizetako arduradunek batzarra egin zuten

Otsailaren 20an, Leintz Gatzagako, Arrasateko, Oñatiko eta Aretxabaletako auzoetako elizetako hainbat ordezkarik batu ziren Aozaratzen; hogeitauko auzoetako abade falta izan zuten hizpide; Leintz Gatzagak eta Aretxabaletak ere ez daukate abaderik eta egoera berezuan daude. Batzarraren ostean, afari-merienda egin zuten Matikua jatetxean.



### Egubakoitzean eta zapatuan, 'Egunkaria'-rekin

Euskaldunon *Egunkaria*-ren itxierak euskaldun guztiok jarri gaitu dantzan, eta aretxabaletarrok ere ez gara atzean geratu. *Egunkaria* denok garelako adierazteko, egubakoitz ilunkaran hainbat herritar batu ziren udaletxearen aurrean. Zapatuan, ostera, Donostian izan zen bilgunea, eta aretxabaletar ugari joan ziren hara, batzuk autobusez, beste batzuk automobilez, eta beste batzuk trennez. /M.A.

Ehiztza ezberdinetan parte hartzeko aukera:

FANKY SALSAS SPINNING

ETA GAINERA TAI-CHI AIKIDO

ETA AEROBIK TXIKIKO ERAKUSTALDIAK

SARIEN ZOZKETA ETA POTEOA



# Zainduz

Ilargi Plaza, 6 behe  
Tel. 943 71 27 92  
20550 ARETXABALETA (Gipuzkoa)

Animatu eta mozorrotuta etorri  
Zainduz-en partez ikasteriak ONDO ONDO PASAU!

**Martxoak 1** Larunbata • Goizeko 9:30 etatik 12:30 etara.

urteurrena

# 2

**ARATUSTEAK/** Mozorro Lehiaketako sari banaketa, aurten, udaletxeko balkoitik

# Urteroko egitaraua aurtengo Aratusteetan

MIRARI ALTUBE

Beste batzuetan baino berandutxoago, baina aurten ere heldu zaizkigu Aratusteak. Domeka izango da Aratustee-tako egun handia, nahiz eta martitzenean ere ospatu eskoletako umeek. Betiko itxura alde batera utzi, mozorro jantzi, eta goazen kalera!

Udaleko Kultura Sailak egitarau txukuna prestatu du bai Aratuste-domekarako, bai martitzenerako, baina herritarrak izango dira, duda barik, kaleak girotuko dituztenak.

## SARI BANAKETA, UDALETXETIK

Domekan, txistularien doinuekin esnatuko da herria, eta txaranga kalean gora eta behera ibiliko da egun osoan. Familiak, koadrilek, bikoteek..., denek izango dute lekua Aretxabaletako kaleetan, eta zein baino zein dotoreago etorriko da, gainera.

Eguerdian, Txino dantza izango da protagonista, eta arratsaldean, berriz, EPEH plataformak antolatutako manifestazioa, Santa Ageda mutilen dantza saioa eta horren ostean mozorro lehiaketako sari banaketa egongo dira. Azken hori, gainera, udaletxeko balkoitik egingo dute, plazako eraikina botatzen dabilta-eta.

## MARTITZENEAN ERE JAI GIROA

Domekan ez dira bukatuko ospakizun guztiak, martitzenean ere egongo da-eta zer ikusi. Goizean,



Herritarrak eta kanpotarrak, denak ibiliko dira mozorrotuta Aratuste-domekan.

Pausoka Haur Eskolako umeak hurreratuko dira plazaraino, eta arratsaldean, Kurtzebarri, Santa Rita eta Almen ikastetxeetako ume eta gaztetxoak. 18:00etan, Poko Piko taldearekin musika festa egongo da Mitarte kalean eta 20:30ean, herri afaria, Taberna

Barri jatetxean. Eguna, eta aurtengo Aratusteak bukatzeko, 22:30ean, Txinoaren Hileta egingo dute. Mitarte kaletik plazaraino eroango dute txinoaren zerraldoa, eta atzetik herritarrak joango dira doluz jantzita eta kandalak eskuan dituztela.

## TXUTXUMUTXUA



## Arizmendi Ikastolari baietza eman zioten

Joan den egunean, otsailaren 20an, egin zuten bozketa Almengo, San Frantzisko Xabierko, San Viatoriko eta Umezaintzako bazkideek, Arizmendi Ikastola sortu edo ez erabakitzeko. Aretxabaletako egoitzan izan zen batzar orokorra, eta lau koöperatibek eman zioten baietzaategite proiektuari: Almengo %93k, San Frantziskoko %89k, San Viatoriko %89k eta Umezaintzako %100ek. Arizmendi Ikastolak 3.000 ikasle inguru ditu eta Euskal Herriko ikastolarik handiena da. /M.A.

## LABUR

## Bederen Bat konpainiak antzezlan eskainiko du egunean, Emakumearen Eguna ospatzeko

Datorren zapatuan, martxoaren 8an, Emakumearen Eguna ospatuko da mundu osoan, eta Aretxabaletan ere gogoratuko dute. Loramendi Eeko Tril emakume taldeak eta Udaleko Kul-

tura Sailak antzerkia antolatu dute martxoaren 6an, egunean. Bederen Bat konpainiak Ainhoa Albertiren antzezlan aurkeztuko du udaletxe zaharrean, 19:00etan.



**Laster**  
Durana 40tik  
**Durana 19ra**  
aldatuko  
gara!

**M**obiliario  
**A**RENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

**Dorleta**  
**taberna**

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8  
Aretxabaleta  
Tel. 943 79 94 15

**P**ENSOS  
**SUNZUE S.A.**

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea  
ARETXABALETA  
Tel. 943 77 00 33/79 42 56


**ARQUERO**  
**CONSTRULAN S.L.**

ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51  
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:  
**Lyonel**  
**Arquero**

Dekorazioa:  
**Soraya**  
**Arquero**



**MAPFRE**  
Aseguroak

Errekabarren, 3  
Aretxabaleta  
Tel.: 943 77 11 76

**LEIBAR**  
arrandegia

Mitarte Kalea, 1  
Tel.: 943 77 13 79  
Aretxabaleta



AITOR ALCAIDE/ARLUTZ XAKE TALDEKO JOKALARIA

## "Ohorezko Ligan jokatu dugun hirugarren aldia izango da"

AMAGOIA LASAGABASTER

Arlutz xake taldeko jokalariek Ohorezko Ligan jokatu dute datorren urtean. Hori da Euskal B Liga irabazteagatik duten ordaina. Lau taldekideak pozik daude egindako lanarekin. Halaxe esan digu Aitor Alcaide xakelariak.

**Zer moduzko liga jokatu duzue aurten?**

Oso ona. Hasieratik goiko postuetan ibili gara eta liga amaitu aurretik Ohorezko Ligara igotzeko txartela eskuan geneukan. Txapelketa ona jokatu dugu eta merezimendu osoz irabazi dugu Euskal B Liga.

**Zeintzuk izan dira zailtasunak?**

Ez dakit. Ez dugu hutsik egin ligako talderik onenen aurrean, baina bai, beharbada, erdipurdikoen aurka: erraz irabazi beharreko partidu batzuk galdu egin ditugu. Edozelan ere, taldekide batek huts eginda ere, gainerakoei euren partida irabazten jakin dute. Franek, esaterako, ez du partidurik galdu ligan.

**Taldeka jokatu arren, norberak irabazi behar izan ditu**



*"Liga amaitu aurretik Ohorezko Ligara igotzeko txartela eskuan geneukan"*

**partiduak. Zu zelan ibili zara?**  
Ondo. Sei puntu inguru atera

ditut, eta hori ez dago batere txar to. Esteban eta biok orain dela sei hilabete hasi ginen entrenatzen, eta hori ligan sumatu egiten da. Taldeko maila, oro har, igo egin da, eta igoera horretan zerikusirik handia izan dugu Estebanek eta biok. Franek eta Andonik, bestalde, euren maila ona erakutsi dute beste behin ere. Gipuzkoako onenetakoak dira, eta hor jarraitzen dute.

**Zelan entrenatzen zara?**

Maisuek jokatzeko dituzten partidak ikusten ditut eta aldizkariak eta liburuak irakurtzen ditut, besteak beste.

**Eta datorren urtean Ohorezko Ligan ibiliko zarete; gertu horretarako?**

Bai. Iaz ere maila horretan jokatu genuen, eta badakigu zer den. Gogorra da, iaz azkeneko postuan gelditu ginen-eta. Edozelan ere, gu, betiko moduan, ikasteko gogoz joango gara. Gainera, Ohorezko Ligan jokatzeko dugun hirugarren aldia izango da.

**Eta datorren urtera arte zer egingo duzue?**

Txapelketa laburrak jokatu ditugu. Martxoaren 15ean, esate baterako, Durangoko Xake Txapelketan hartuko dugu parte.

TXIRRINDULARITZA

## Domekan, hilaren 2an, hasiko dute herriko zikloturistek aurtengo denboraldia

Oraingo domekan egingo dute herriko zikloturistek aurtengo denboraldiko lehenengo irteera. Ohiturari ertsiz, Dorletako Ama Birjinari lore sorta eskaintzera joango dira goizeko hamarretan. Denboraldiak irailera arte iraungo du, eta tarte horretan zikloturistek ia domekero egingo dituzte irteerak.

## FOTOKIROLA



## Trialsinak arrakasta handia izan zuen

Domekan, hilaren 23an, Euskadiko Trialsin Txapelketako hirugarren jardunaldia jokatu zuten herrian. Euskal Herriko trialsin-lasterkari onenak etorri ziren Aretxabaletara, eta guztiak erakustaldi bikaina egin zuten. Eguraldiak ere lagundu zuen, eta ikusle ugari hurreratu zen Porrukotxa aldera./A.L.

Jar zaitez profesional  
espezializatuen esku.

*Zure osasuna gure ardurua da.*

ERREHABILITAZIO ETA MASAJE  
ZENTRUA



Gora Inauteriak!



ZERBITZUAK:

- ERREHABILITAZIOA
- MASAJE TERAPEUTIKO ETA KIROL MASAJEA
- AKUPUNTURA
- OSTEOPATIA
- ELEKTROTHERAPIA - ULTRASOINUAK
- DRENAJE LINFATIKOA ESKUZ
- GIHAR INDARTZEA
- PODOLOGIA



Partikularrekin eta seguru  
etxeekin lan egiten dugu:  
(Lagun Aro, Adeslas, Mapfre,  
etab.)

Belorrieta 6-7 • 20550 Aretxabaleta • Telf.: 943 79 95 64 • Gipuzkoa

ERRETRATUZAHARRA

# 1952ko Santa Ageda mutilek ederto ospatu zituzten jai egunak

**A**ratuste-domeka bitartean aurtengo Santa Ageda mutilek domekero egin dute dantzan plazan. Ohitura, oster, ez da gaurkoa; izan ere, 1952an ere halaxe egin zuen erretratuan agertzen den mutil koadrilak. Badirudi kinto gutxi batu zirela urte hartan, eta taldea osatzeko kinto ez ziren hiru mutil ere gehitu zitzaizkien: Luis Beltran de Heredia, Antxomari Aretxaga, eta Angel Etxabe, hain zuzen ere.

Txapel gorria dute buruan eta lepokoa bizkarretik behera, baina praka zuririk ez; izan ere, garai hartan fraka zuriak Santa Ageda egunean baino ez ziren janzten. Kuriosoa, baina dantzan egiteko alpagatarik ere ez dute; horien ordez zapatak dituzte guztiek, euria egin zuelako. Erretratu, bestalde, Bernardino Zubiaren etxe parean ateratakoa da, gaur egun Muru Alde elkarte dagoen lekuan. Bittor Agirrerren esanetan, orduan gaur baino jai handiagoa izaten zen Santa Ageda eguna. Bazkaria gehienek etxe partikularretan egiten zuten, eta erretratuko kinto horiek Altuberen etxean egin zuten. Bazkalostean, berriz, asto gainean bertsoak kantatuz kalean gora eta behera ibili ziren. "Gogoan dut tantaia lapurtzera joan ginela Bainuetxe ingurura, eta tiroz hartu gintuela Bainuetxeko zaindaria", dio Bittorrek. "Hori ikusita asko beldurtu ginen, eta Arkarazoko baserritar batek lagundu zigun tantaia

botatzen. Altxatu genuenerako goizeko bostak ziren". Onartzen du edan ere dezente edaten zutela, baina ez orain egiten dituzten nahasketak, ardoa besterik ez: "Lehenengo mozkorra tantaia jasotzen genuen egunean harrapatu ohi genuen; baina, neure iritziz, oraingo mutikoak baino gizonagoak ginen orduan, batez ere, lanean oso gazte hasten ginelako".

Azken dantza eguna Aratuste egunean izaten zuten, orain bezala, baina orduan ez zen inor mozorrotzen. Guztiz debekatuta zegoen mozorrotzea; hortaz, Santa Ageda mutilak dantzan ikusita konformatu behar. Izan ere, Aretxabaletan 1936an ospatu zituzten gerra aurreko azken Aratustekak, eta 40 urte geroago arte ez zen inor mozorrotu: 1976an izan zen hori. Aratustekak ospatzeko Tolosara joan beharra zegoen, eta aretxabaletarrek ez zuten herritik irteteko ohiturarik.

Goiko ilaran, ezkerretik hasita, honakoak daude: Esteban Axpe, Patxi Arriola, Antxomari Aretxaga, Juan Jose Elortondo eta Angel Etxabe.

Bigarren ilaran, berriz, ezkerretik hasita, honakoak ageri dira: Fernando Etxebarrieta, Alvaro Zubillaga, Bittor Agirre eta Alberto Beltran de Heredia.

Azkenik, makurtuta, honakoak daude: Luis Beltran de Heredia eta Ramon Altube.

Argazkia: Puri Beltran de Heredia



## TXIMAK

- Ile apaindegi mistoa
- Estetika
- Depilazioa argizari epelarekin



Herriko plaza 5.  
ARETXABALETA.  
Tel.: 943 79 83 64

## Maritxu drogeria mertzeria

Araba Ibilbidea, 24  
Tel.: 943 79 23 53  
ARETXABALETA

## J.J. IRURE ITURGINTZA

URA  
GASA  
KALEFAKZIOA

MITARTE, 15  
ARETXABALETA

943 793 187

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



URKULU, S.L.

Mitarte, 23  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 96 66  
Fax: 943 77 10 33

OPEL

## OPEL COMBO TOUR Lider berria

GARAJE NORTE S.L.

Basabe bidea A 1-3 ARETXABALETA  
943 71 20 03 Faxes: 943 77 16 20

Orain %16a aurrez dezakezu  
Agila, Corsa eta Astra Diesel eta Gasolinan



# Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2003ko otsailaren 28a / 115. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

## Eskoriatzar bat baino gehiago aho zabalik geratu da Udal Biblioteka berriarekin

AINTZANE GARDOKI

Joan den egubakoitzean, hilaren 21ean, inauguratu zuten Udal Biblioteka. Lagun ugari elkartu ziren Udal Bibliotekan, eta, gainera, eskoriatzar bat baino gehiago aho zabalik geratu zen. Hala, astelehenetik aurrera 16:30etik 19:30era egongo da zabalik Udal Biblioteka.

Edorta Zubizarreta alkateak hartu zuen egubakoitz iluntzean hitza; hark ekitaldiari sarrera egin eta gero, Udal Bibliotekako lanak egin dituen Jesus Laskurain aparejadoreak proiektuaren nondik norakoak azaldu zituen. Bibliotekako arduradun Iñaki Agirianok, bestalde, egoitza berria zelan banatu duten eta dituen helburuen gainekoak azaldu zituen. Haren ondoren, Goienako Iban Arantzabalek [www.eskoriatza.net](http://www.eskoriatza.net) webgune berria aurkeztu zuen: eskoriatzarrendako egindako web dinamikoa dela esan zuen.

### UMEK, LEKUALDATZE SINBOLIKOA

Egubakoitz goizean, herriko eskolako eta ikastolako umek liburutegi zaharretik biblioteka berri-



Eguerdiari, umek liburutegi zaharretik biblioteka berrira eraman zituzten liburuak. Iluntzean, berriz, arduradunek biblioteka inauguratu zuten.

ra liburuak eraman zituzten, Oihulari Clown taldeko kideen laguntzarekin.

Egubakoitzean inauguratu ostean, zapatu goizean zabalik

egon zen biblioteka, herritarrek egoitza ikus zezaten. Lagun ugari ibili zirela esan digu Iñaki Agirianok. Asteon, gainera, ekitaldi ugari egin dituzte, herritarrek



bibliotekara hurrera zitezten: Alberto Iñurrategik *Hire Himalaia* liburua aurkeztu zuen; umendako ipuin kontaketa saioa egin zuten; eta Taun Taun talde-

ak *Txio-Txioka* emanaldia egin zuen. Horrekin guztiarekin, astelehenetik aurrera (hilak 3) Eskoriatzako Udal Biblioteka 16:30etik 19:30era egongo da zabalik.



### 'Egunkaria'-ri elkartasuna herritarrek

Joan den otsailaren 20an, *Euskaldunon Egunkaria* itxi zuten berriarekin esnatu zen Euskal Herria. Eguen eta egubakoitz iluntzean Del Olmo epaileak agindutakoaren kontra egin, eta *Egunkaria*-ri elkartasuna adierazteko herritar ugari elkartu zen plazan. Han, Gipuzkoako Ikastolen Federazioko presidente Joxerra Zubizarretak esan zigun Ikastolen Elkarteak, Xabier Oleagaren gauzak ia ukitu barik, informazio konkretuagoa, diru kontuak eta beste, eraman zituela Guardia Zibilak. /A.G.

### LABUR

#### Julian Letona frantziskotar marindarra hil da

Bihotzekoak jota hil zen domekan, hilaren 23an, Julian Letona. 61 urteko marindarra Arantzazun bizi zen 1988a ezker. Orduz gero Urbiako artzainen kapilaua izan da Maringo frantziskotarra. Lehenago, misiolari ibili zen 12 urtez, eta Arrasateko frantziskotarren komentuko atezain ere izan zen beste 8 urtez. Arantzazuko komentuko diruzaina zen egun. Domeka iluntzean afaltzera ez zela joan eta, lagunak gelara bila joan zirenean hilda aurkitu zuten.



### TELEFONO JAKINGARRIAK

<b>ESKORIATZA</b>	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetzak	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

<b>BESTELAKOAK</b>	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	943 77 10 43

### OHARRAK

#### UDALEKU IREKIAK

Aurreko urteetan moduan, Eskoriatzako Udalak herriko umeendako udaleku irekiak antolatuko ditu uztailean.

Eta udaleku irekietan zuzendari eta begirale izateko epea zabalik dago. Hortaz, interesatuek martxoaren 18a baino lehenago izena eman eta curriculum aurkeztu beharko dute Eskoriatzako kultura etxean.

Bete beharreko baldintzak: 18 urte beteta edukitzea eta euskaraz berba egiten eta idazten jakitea. Begirale titulua edukitzea ere baloratuko dute.

### AXTROKIRENAGENDA

#### ELKARTASUNA

Axtrokik elkartasuna adierazi gura die *Egunkaria*-ri, hango langileei eta atxilotuei. *Egunkaria* ixtea euskararen eta adierazpen askatasunaren aurkako eraso delako uste du.

### INAUTERIAK

## Urdelardero Egunarekin hasi dira aurten ere herriko Inauteri festak

AMAGOIA LASAGABASTER

**Atzo, hilak 27, Urdelardero Eguna ospatu zuten herriko ume eta gaztetxoek. Jai horrek iragartzen ditu urteroko Inauteri festak, eta aurten ere halaxe egin du. Bihar, zapatua, eta martitzena mozorrotzeko egunak izango dira. Eskoriatzarrak, gertatu zuen mozorroa!**

Atzo, eguna, herriko ehunka ume ibili zen kalez kale kantari eta eskean, ziria janariz betetzeko. Hori da ohitura Urdelardero Egunean, eta aurten ere ez diote hutsik egin. Garai baten, usadioa zen txerria hiltzeko sasoiaren txerri eske ibiltzea. Orain, berriz, txerriarekin beharrean, litxarreriekin konformatzen dira umeak.

#### ZAPATUAN

Bihar, zapatua, arratsaldean hasiko da herrian Inauteri festa: 17:30ean, *Koldotxo kobazuloan* antzezlan eskainiko dute Herriko Plazan. Gero, antzerkiari musika

*Aurten, ohiko Kukumarroez gain, Kukumarro handi bat ere jarriko dute Herriko Plazan*

hartuko dio lekukoa: eta, hala, 18:00etan, Eskoriatzako Trikitixa Eskolakok kalejira egingo dute. Baina ez dira trikitixa soinuak bakarrik entzungo herrian; izan ere, Jatorrena txarangak kaleko giroa animatuko du arratsaldean. Gauean, berriz, dantzarako musika jarriko du Gau-bela taldeak.

#### KUKUMARROAK

Martitzen goizean ere umeek egingo dako festa berezi batekin hasiko dira ospakizunak. Arratsaldean, ordea, jaietako pertsonaia nagusi Kukumarroak izango dira. Aurten, gainera, ohiko Kukumarroez



ARTXIBOA

Urdelardero Egunean Eskoriatzako umei ez zaie jatekorik falta izaten zirian.

gain, Kukumarro handi bat ere jarriko dute Herriko Plazan. Herriarrek pertsonaia hori joko dute gauza txar guztien errudun. Horre-

tarako, norberak gura duena idatzi eta hari zintzilikatuko dio arratsaldean. Gero, gauean, Kukumarroa erre egingo dute.

## Batzar orokorrean Almen Ikastola desegin zuten, botoen gehiengoarekin

AINTZANE GARDOKI

Almen kooperatibak joan den astean egin zuen batzar orokorrean. Hainbat puntu jorratu zituzten arren, gai zerrendako seigarren puntuan Arizmendirenategite proiektua izan zuten aztertzeke. Bategitearen gainekoak aztertu ostean, bategitea onartzeko elkartutakoek bozkatu egin zuten. Almen kooperatibako 71 langile-bazkidek, 71 guraso ordezkari eta 71 bazkide laguntzailek zeukaten botoa emateko aukera. Hala, 107 lagunek eman zuten botoa: horietatik ehunek baietza eman zion bategiteari eta zazpik, berriz, ezetza. Hortaz, Almen kooperatibako ordezkarien %93k baietza eman zioten Arrasateko Ume-

zaintza, San Frantzisko Xabier eta San Viator ikastolekin bat egin eta Arizmendi Ikastola-Euskal Herriko ikastolarik handiena-sortzeko prozesuari.

San Viatoriko eta San Frantzisko Xabierko ordezkarien %89k eman zioten baietza bategiteari. Umezaintzako ordezkariak, aldiz, baiezkotz biribila eman zioten Arizmendi Ikastolari.

#### ARIZMENDI KOOPERATIBAK XURGATU

Arizmendi kooperatibak lau kooperatiba horiek xurgatu ditu.

Dena dela, oraindik bateratze juridikoa osatzeko hainbat pauso daude egiteko. Hala, datorren irailean, Arizmendi juridikoki ere enpresa bakarra izango da.

1965ean sortu zen Almen ikastetxea: *Garai hartan leniztar gizarteak zituen zenbait gabeziari erantzuteko*. Hori jasotzen da Almen ikastetxearen historia laburra egiten duen liburuxkan. "Orain ere, gizarteari ahalik eta ondoen erantzun guran, onerako izango da bategitea", esan digu Almen gureko kudeatzaile J. M. Ganboak.

### LABUR

#### Itzalaldia eragin zuen haize gogorak herrian


Haizearen eraginez, joan den martitzenean, hilaren 25ean, Eskoriatzan eta hainbat elizatan argi barik egon ziren eguerditik arratsaldeko bostak ingurura arte. Horren harira, Udaltzaingoa esan digu Hildagan teila batzuk jausi eta Almenera bidean zuhaitz bat jausi zela. Dena dela, ez da zauriturik izan.

#### Haize gogorak, kiroldegiko kristalak apurtu

Haize bolada indartsuek kalte bat baino gehiago egin dute astean herrian. Zapatuan, kiroldegiko leiho bat jausi zen, baina zoritxarrez ez zen bakarra izan, beste bi gehiago ere jausi dira eta geroztik: astelehen goizean, 15 m<sup>2</sup> zuen leiho bat jausi zen eta goizaldean beste bat etorri zen behera. Hala, arduradunek esan digute leihoak indartzen dabilzala eta lehenbailehen kirol kantxa zabaldu eta egoera normaltzea dutela helburu.



## EDURNE



Elektroterapia.

ESTETIKAN  
ESPEZIALIZATUTAKO  
ZENTRUA

Aranburuzabala 42  
Tel.: 943 71 51 54  
ESKORIATZA

# Umeendako jolasak eta mozorro afaria egongo dira zapatuan Leintz Gatzagan

AINTZANE GARDOKI

Inauteriek Gatzagan ohitura handirik izan ez duten arren, azkeneko urteotan hainbat ekintza bultzatu izan dituzte herritarrek, herrian jai giroa bultzatzeko asmoz. Aurten ere mozorroak ganbaratik atera, eta zapatuan festa girorik ez da faltako herrian.

Bihar, zapatua, arratsaldeko bostetan hasiko dira herriko umeendako jolasak. Gatzis gazteen taldeak antolatuko ditu, azkeneko hiru urteotan moduan, umeendako jolasok: "Udalak Garro jau-regian txoko bat uzten digu gazteoi. Lokala hutsaren truk uzten digu, gainera. Nolabait ordaindu guran, azkeneko hiru urteotan Inauterietako zapatu arratsaldean guk antolatzen ditugu herriko umeendako jokoak", esan digu Gatzis taldeko kide Ainara Zubillagak. Umeak hiru taldetan banatuko dituzte: 2 eta 6 urte bitartekoak, 7 eta 9 urte bitartekoak eta 10 urtetik gorakoak: "Adin bakoitzari egokitutako ohiko joko eta jolasak egingo ditugu bihar. Umeak eta gu geu ere mozorrotuta



Arratsaldean txikien txanda izango da, eta nagusiek ere, bapo afaldu eta gero, dantzarako aukera izango dute.

egongo gara, eta, jokoak amaitu eta gero, desfilea egingo dugu mozorrorik onena aukeratu eta saritzeko".

## MOZORRO AFARIA

Iluntzarekin batera, umeek nahiko jolastu eta gozatu eta gero, nagusien txanda etorriko da.

Mozorro afaria egingo dute herritarrek Ostatur. Norberak duen mozorrorik onena jantzi, eta elkarrekin afalduko dute. Sarrera-

koak, bildotsa eta azkenburukoak jan eta gero, goizaldera arte dantzarako aukera izango dute Iñigo Madinabeitiarekin.



## Zikloturistei ongietorria domekan

Arabako eta Debagoieneko zikloturistek martxoko lehenengo domekan Dorletako Amabirjinarengana etortzeko ohitura dute. Txirrindularien zaindariari lore sorta eskaintzen diote zikloturistek. Aurten Leintz Gatzagako txirrindulari lasterketak 25 urte beteko dituela eta, duela hilabete batzuk komisiario bat lanean dabil gai horren gainean. Martitzenean, batzarra egin zuen lantaldeak; domekan, ongietorria egingo diete zikloturistei Dorletako Santutegian, 11.30ean.

## LABUR

### Posta zerbitzua zabalik egunero ordu erdiz

Leintz Gatzagako alkateak eta Eskoriatzako elizateetako auzo-alkateek batzarra egin dute, posta zerbitzua hobetzeko asmoz. Leintz Gatzagari dago-kionez, Udalak Arlaban aldeko baserrietan postontziak jarriko ditu; oraindik ez du zehaztu noiz eta non jarri. Bestetik, joan den astea ezker, udal-txeko beheko solairuan zabalik dago posta zerbitzua, egunero, 11:30etik 12:00etara. Hortaz, aurrerantzean gutun zertifikatu bat edo bidaltzeko ez da Eskoriatzara joan behar.

## OTZETA

TABERNA • JATETXEA

- Eguneko menua
- Palter konbinatuak
- Bokadiluak
- Pintxuak



Aranburuzabala 7. Tel.: 943 71 51 90 ESKORIATZA

ESKORIATZA  
Tfno 714345  
ERRETEGIA  
MENDIOLA


Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita  
ESKORIATZA

Calderería  
Cantera, S.L.  
ALUMINIOAK

Zurgintza alumioa erabilia

Aingerugardakoa ibilbidea z/g  
T. 943 71 49 11 F. 943 71 44 21  
ESKORIATZA



**EGUZKIGRAF**  
inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4  
Araba Ibilbidea  
20550 ARETXABALETA  
Tfnoa.: 943 791844 / Faxe: 943 792941  
info@eguzkigraf.com



Txin, txin, txin, txin,  
mahatsa heldu gabe dago.  
Txin, txin, txin, txin,  
baina helduko da.  
Txiribito eta andrea,  
joan ziren jatera,  
Txiribito haserretu  
eta bota zuen lapiko.

Ondo pasa Aratusteak!!

**Aretz**  
taberna



.Gosariak

.Pintxoak

.Plater konbinatuak

.Otartekoak

.Pizzak

.Hanburgesak

.Sandwichak

.Oilasko erreak

.Kazuelatxoak

**INAUTERIETAN, GIRO ONENA!**

**ORDUTEGIA:**

Astelehenetik ostiralera

9:00etatik zabalik


Astebukaeretan

11:00etatik aurrera

Markole 5, behea Tel.: 943 79 14 67 ARETXABALETA

# GRUPO **RKUZ** 1950-2003

Zure etxea da



Araba etorbidea 20  
Tel./Faxa: 943 79 23 51  
**ARETXABALETA**



Araba Etorbidea 5  
Tel./Faxa: 943 79 41 82  
**ARRASATE**



Mitarte 3  
Tel./Faxa: 943 77 04 55  
**ARETXABALETA**



Andramari auzunea 1  
Tel./Faxa: 943 79 10 97  
**ARETXABALETA**

